

## CRITERIOS Y BAREMO

a) **Renta anual de la unidad familiar** (conceptos acumulables hasta la puntuación máxima del apartado). – Si la suma de la base imponible general y la base imponible del ahorro de la Declaración de la Renta del año 2019 no supera los 12.600,00 euros: 0,5 puntos. – Si la suma de la base imponible general y la base imponible del ahorro de la Declaración de la Renta del año 2019 supera esta cantidad: 0 puntos. – Además, en los supuestos anteriores, se sumarán 0,25 puntos por cada hijo o hija menor de edad distinto del o de la solicitante. – Puntuación máxima de este apartado: 1,5 puntos.

b) **Proximidad del domicilio** (conceptos no acumulables). – Domicilio del alumno o alumna en la zona de influencia del centro solicitado: 5 puntos. – Domicilio del alumno o alumna en la zona de influencia limítrofe a la del centro solicitado: 2 puntos. – Domicilio del alumno o alumna en el municipio en el que se encuentre ubicado el centro, pero fuera de las zonas de influencia y limítrofes: 1 punto. – Domicilio del alumno o alumna en la Comunidad Autónoma del País Vasco, pero fuera de las zonas de influencia y limítrofes y del municipio en el que se encuentre ubicado el centro: 0,5 puntos. – Lugar de trabajo del padre, madre, tutor o tutora legal del alumno o alumna en la zona de influencia del centro solicitado: 2 puntos (esta puntuación es incompatible con la que se otorga por el hecho de que el padre, madre, tutor o tutora legal del alumno o alumna trabaje en el centro solicitado o en un centro adscrito). – Puntuación máxima de este apartado: 5 puntos.

c) Existencia de **familiares que estudian o trabajan en el centro** (conceptos no acumulables). – Uno o más hermanas o hermanos matriculados en el centro solicitado o en un centro adscrito: 9 puntos. – El padre, madre, tutor o tutora legal trabaja en el centro solicitado o en un centro adscrito: 7 puntos (esta puntuación es incompatible con la que se otorga por el hecho de que el padre, madre, tutor o tutora legal del alumno o alumna trabaje en la zona de influencia del centro solicitado). – Puntuación máxima de este apartado: 9 puntos.

d) Pertenencia a **familia numerosa**. – Por pertenecer a una familia numerosa de categoría general: 1 punto. – Por pertenecer a una familia numerosa de categoría especial: 1,5 puntos.

e) Situación de **acogimiento familiar**. – Por situación de acogimiento familiar del alumno o alumna solicitante: 1 punto. N.º 3 jueves 7 de enero de 2021 BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO 2021/33 (23/23)

f) **Discapacidad** (puntuación máxima por este concepto: 2 puntos): – Del alumno o alumna solicitante: 2 puntos. – De su padre o de su madre o de su tutor o tutora legal o de alguno de sus hermanos o hermanas: 1 punto.

g) Condición de **socio o socia cooperativista**. – Por condición de socio o socia cooperativista del centro solicitado de alguno de los miembros de la unidad familiar: 0,5 puntos.

h) **Otras circunstancias relevantes apreciadas por el Órgano Máximo de Representación o Consejo Escolar del centro**. – Por criterios determinados por el Consejo Escolar u Órgano Máximo de Representación del centro, que podrán ser también alguno o algunos de los expresados anteriormente, establecidos de acuerdo con criterios públicos, objetivos y no discriminatorios por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social: hasta 1 punto (los criterios deberán ser hechos públicos y comunicados al correspondiente Delegado o Delegada Territorial de Educación con anterioridad al comienzo del plazo de presentación de solicitudes).

## IRIZPIDEAK ETA BAREMOA

a) **Familia-unitatearen urteko errenta** (kontzeptu metagarriak dira, harik eta ataleko gehieneko puntuazioa lortu arte). – 2019ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak ez baditu 12.600,00 euroak gainditzen: 0,5 puntu. – 2019ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak zenbateko hori gainditzen badu: 0 puntu. – Horrez gain, aurreko kasuetan, 0,25 puntu gehituko dira eskatzailea ez den seme-alaba adingabe bakoitzeko. – Atal honetako puntuazioa, gehienez ere: 1,5 puntu.

b) **Bizilekuaren gertutasuna** (kontzeptu hauek ez dira metagarriak). – Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan dago ikaslearen bizilekua: 5 puntu. – Eskatutako ikastetxearen eragin-eremu mugakide batean dago ikaslearen bizilekua: 2 puntu. – Eskatutako ikastetxearen udalerrian dago ikaslearen bizilekua, baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo: 1 puntu. – Ikasleak bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, baina ikastetxea kokatuta dagoen udalerritik eta eragin-eremu zein eremu mugakideetatik kanpo: 0,5 puntu. – Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan dago aitaren, amaren edo legezko tutorearen lantokia: 2 puntu (puntu horiek bateraezinak dira ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu den ikastetxean edo ikastetxe atxiki batean lan egiteagatik ematen diren puntuekin). – Atal honetako puntuazioa, gehienez ere: 5 puntu.

c) **Ikastetxean ikasten edo lan egiten duten senideak izatea** (kontzeptu hauek ez dira metagarriak). – Neba-arreba bat edo gehiago daude matrikulatuta eskatutako ikastetxean edo hari atxikitako ikastetxeren batean: 9 puntu. – Eskatutako ikastetxean edo ikastetxe atxiki batean lan egiten dute aitak, amak edo legezko tutoreak: 7 puntu (puntu horiek bateraezinak dira ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu den ikastetxearen eragin-eremuan lan egiteagatik ematen diren puntuekin). – Atal honetako puntuazioa, gehienez ere: 9 puntu.

d) **Familia ugariko kide izatea**. – Maila orokorreko familia ugariko kide izateagatik: 1 puntu. – Maila bereziko familia ugariko kide izateagatik: 1,5 puntu.

e) **Familia-harrerako egoera**. – Ikasle eskatzailea familia-harreran egoteagatik: 1 puntu.

f) **Desgaitasuna** (kontzeptu honengatik gehienez jaso daitezkeen puntuak: 2 puntu): – Ikasle eskatzailearena baldin bada: 2 puntu. – Aitarena, amarena, legezko tutorearena edo neba-arrebaren batena baldin bada: 1 puntu. 3. zk. 2021eko urtarrilaren 7a, osteguna EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA 2021/33 (22/22)

g) **Kooperatiba-bazkide izatea**. – Familia unitateko kideren bat eskatutako ikastetxeko kooperatiba-bazkide izateagatik: 0,5 puntu.

h) **Ordezkaritza Organo Gorenaren edo eskola-kontseiluaren ustez garrantzitsuak diren bestelako arrazoiak**. – Ikastetxeko eskola-kontseiluak edota Ordezkaritza Organo Gorenak ezarritako baldintzengatik, aurretik esandakoak izan daitezkeenak. Horiek irizpide publiko eta objektiboek jarraituz eta jaiotza-, arraza-, sexu-, erlijio-, iritzi-arrazoiengatik edo beste edozein egoera edo baldintza pertsonal edo sozialengatik inor baztertu gabe ezarri dira: 1 puntu gehienez (baldintzak jakitera eman beharko dira, eta dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari jakinarazi, eskabideak aurkezteko epea hasi baino lehen).